

MUSIKA

BARAKALDO

► **Los Spiders.** Mellid tabernan, 20:30etan.

BASAURI

► **Kepa Junkera: Bilbao 00:00.** Social antzokian, 20:30etan.

BILBO

► **The Silos eta Zein?.** Kafe Antzokian, 22:00etan.

DONOSTIA

► **Jerky Turkey** eta **Non Grato.** Trintxerpeko Mogambo aretoan.
► **Dj Fidel.** Etxekalten.

GETARIA

► **Irailerako 6.** Dantzaldia 22:00etan. Jaiak.

GORLIZ

► **Zea Mays.** Xurrut tabernan.

IRUÑEA

► **Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.** Gayarre antzokian, 20:00etan.

IRUN

► **Bad Sound System.** Tunk! aretoan.

LASARTE-ORIA

► **Tatiana Vovnovich.** Piano kontzertua Manuel Lekuona kultur etxean, 20:00etan.

PASAIA

► **Joxe Ripiau.** Pasai Antxoko Kanio tabernan, 22:30etan.

ANTZERKIA

BAIONA

► **2500 a Pheure** obra antzeztuko du Théâtre de l'unité taldeak antzokian, 21:00etan.

BARAKALDO

► **Mujeres al vapor** obra antzeztuko du Pez Luna Teatro taldeak Barakaldo antzokian, 20:30etan.

BILBO

► **Bodas de sangre** Federico Garcia Lorcaren obra Arriaga antzokian, 20:00etan.
► **Cassandra** Martin Bertendona institutuak interpretatua Bilborock aretoan, 20:00etan.

DEBA

► **Shakespeare osoa gutxi gorabehera** obra antzeztuko du Tanttakak Zubeltzu zineman.

DONOSTIA

► **Los hermanos Pirracas en ne-mequitepá** obra antzeztuko du Esteve y Ponce taldeak Gazteszenan, 20:00etan.

ELGOIBAR

► **Lourvier's story** obra antzeztuko du Lourvier's-Tentaldiak Herriko Antzokian, 22:30etan.

ANTZERKIA

'Kukubel' • Donostian, Altzako auzo etxean • gaur, 18:00etan



JOXE LACALLE

Iazko martxoan hasi ziren *Kukubel* ikuskizuna aurkeztzen.

Kukubiltxo

• ANTZERKI ETA TXOTXONGILO TALDEA •

«Gu ere harrituta gaude duen harrerarekin»

KUKUBILTXOK hogeitaka urte daramatza lanean, eta *Kukubel* ikuskizuna interpretatzen hainbat plaza eta antzoki igaro ditu iazko martxoaz geroztik. Lan hori Ramon Maria Azkuek bildutako altxorrekin eta ipuin eta pertsonaia ugariarekin jolastuz prestatu dute (*Kukubel*, Mateo Txistu...).

Ordubeteko ikuskizuna da, batez ere haurrentzako baina familian ikusteko ere aukera-aukerakoa, Mari Feli Etxeandia aktoreak adierazi duenez.

■ Harrera ona du, ezta?

Egia esan, gu ere harrituta gaude. Hasieratik jende asko hurbildu da ikuskizunera, eta gustura ikusi dute gainera; eta antzerki munduko jende askok ere itzelezko zorionak eman dizkigute. Horrez gainera, 1998ko Ercilla Antzerki Sarietarako hautagai ere izendatu dute *Kukubel* —urtarrilaren bukaeran jakinaraziko dituzte irabazleen izenak—.

Kukubel bezalako ikuskizunen beharra zegoen beharbada, baina egia da, baita ere, guk 22 bat urteko esperientzia dugula eta hori ere nabaritzen dela.

■ Euskal Herritik kanpo ere erantzun ona?

Euskal Herritik kanpo ez gara toki askotan izan, baina harrera oso ona izan du; udan, adibidez, Tarregako azokan egon ginen, eta Gabonetan Gijonen, eta oso ondo, jendea pozik geratu zen. Gu batez ere Euskal Herrian aritzen gara, eta hemen euskara hutsean egiten dugu; hemendik kanpo erdaraz.

■ Noiz arte *Kukubelekin*?

Beste urte eta erdi inguru. Izan ere, hemengo ikuskizun gehienek urte bi baino gehiago irautea ez da oso erraza, hemengo zirkuitua nahiko arin amaitzen baita, eta Euskal Herritik kanpoko beste toki batzuekin ez baduzu lotzen...

■ Beste obraren bat prestatzen hasi zarete?

Bai. Ideia badugu eta orain hasiko gara prestaketa teknikoekin. Urte honen amaieran edo hurrengoaren hasieran estreinatu nahi genuke. Ikuskizun berria ere *Kukubel*-en antzera ipuin tradizioaletan oinarrituta egingo dugu.

I.Basterretxea
DONOSTIA

IRUN

► **Kolonbia; retos de guerra y paz** hitzaldia emango dute Ion Arregik eta Ivan Forerok Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoan, 20:00etan.

BERTSOLARITZA

AZPEITIA

► **Andoni Egaña eta Xebastian Lizaso** bertsolariak Añota sagardotegian.

LESAKA

► **Bortzirietako bertso eskolaren Txapelketa: 2. kanporaketa.** Kattu ostatuan 22:00etan. D taldea: Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez, Erika Lagoma. E taldea: Bittor Elizagoien, Iñigo Olaetxea, Ekiñe Etxepeteleku.

TOLOSA

► **Amaia Agirre, Amaia Lertxundi eta Ibon Karrera** bertsolariekin bertso-afaria Oargi elkartearen, 21:30etan. AHTren aurkako astea.

ERAKUSKETAK

BARAKALDO

► **Erasmus 97-98** erakusketa, Udal aretoan, urtarrilaren 29a arte. EHuko Arte Ederren Fakultateko ikasleen lanak.

BASAURI

► **Fragmentos.** Felisa Urracaren olio eta eskulturak Arizko Dorretxean, urtarrilaren 28a arte.

► **Iñaki Gracenearen pinturak.** Arizko Dorretxean, otsailaren 2a arte.

► **Tere Ormazabalaren argazkiak.** Arizko Dorretxean, urtarrilaren 29a arte.